

LAURO IKASTOLA

DATA: 2025/02/27

**ORGANISMO: ASAMBLEA
GENERAL ORDINARIA
REF.: 27/02/2025**

**ORGANO: OHIKO BATZAR NAGUSIA
ERREF.: 2025/02/27**

**ACTA DE LA ASAMBLEA GENERAL
ORDINARIA DE LAURO IKASTOLA
SOCIEDAD COOPERATIVA, DEL DÍA
27 DE FEBRERO DE 2024**

En Lauro Ikastola, Loiu, a veintisiete de febrero de 2025, siendo las 19,30 horas, se celebró la Asamblea General Ordinaria, en tercera convocatoria, en los locales de la sociedad, sito en Goitiko-Antsobiaga nº 2 de Loiu, quedando válidamente constituida por la concurrencia personal y por la representación que a continuación se especifica:

- Socios que participan personalmente: 56.
- Socios representados: 26.
- Total de socios usuarios presentes o representados: 82 de los 1.376 socios totales de la Cooperativa.

La relación de socios asistentes se recoge a través del listado que se adjunta al acta como anexo de la misma, con el Vº Bº del Secretario y Presidenta y los miembros de la Comisión de Vigilancia.

Asimismo asistieron, como invitados o por disposición legal estatutaria las siguientes personas no socias:

- Dña. Idoia Iruretagoyena Valle, como Directora - Gerente.
- Dña. Zaloe Gómez Iraola como Directora Pedagógica.
- Dña. Leire Arana Sánchez eta Amaia Bilbao Campos como Letradas Asesoras.

La convocatoria se emitió el día 12 de febrero de 2025, y se anunció públicamente ese mismo día en la web corporativa de Lauro Ikastola e inscrita en el Registro de Cooperativas, en el tablón de anuncios de la Cooperativa en su domicilio social y mediante comunicación escrita personal a cada socio. Siendo su texto el que se reproduce íntegramente a continuación.

**LAURO IKASTOLA, KOOPERATIBA
ELKARTEAREN OHIKO BATZAR
NAGUSIAREN AKTA
2024KO OTSAILAREN 27KOA**

Lauro Ikastolan, Loiu, 2025eko otsailaren hogeita zazpian, 19:30etan, Ohiko Batzar Nagusia egin zen hirugarren deialdian, Elkartearen egoitzan, Loiu Goitiko-Antsobiaga, 2 zbkian, eta balioz eratuta gelditu zen eurak nahiz ordezkariak bidez ondorengo bazkide-kopurua bildu baitzen:

- Bertaratutako bazkide partehartzaileak: 56.
- Bazkide ordezkariak: 26.
- Guztira, bazkide bertaratutako eta ordezkariak: 82 bazkide, eskubidea duten Kooperatibaren 1.376 bazkideen artean.

Bertaratutako bazkideen zerrenda, ondoan doa aktaren gehigarri bezala, Idazkariak eta Presidenteak eta Jagalaritza Batzordeko kideek ontzat emana.

Halaber, gonbidatuta edo legezko estatutuko xedapenez, bazkide ez diren ondorengo hauek ere Batzarrean izan ziren:

- Idoia Iruretagoyena Valle and., Zuzendari - Gerentea.
- Zaloe Gómez Iraola Andrea, Zuzendari Pedagogikoa.
- Leire Arana Sánchez y Amaia Bilbao Campos andreak legegari-aholkulariak.

Deialdia 2025eko otsailaren 12an egin zen, eta publikoki iragarri zen egun horretan bertan Kooperatiba erregistroan inskribatutako Lauro Ikastolako web korporatiboan, egoitzako iragarki- taulan eta bazkide bakoitzari igorritako idatzizko komunikazioaz. Deialdiaren testua ondoan doa osoz.

CONVOCATORIA DE ASAMBLEA GENERAL ORDINARIA DE LAURO IKASTOLA SOCIEDAD COOPERATIVA

De conformidad con lo previsto en el artículo 30 de los Estatutos Sociales de LAURO IKASTOLA, SOCIEDAD COOPERATIVA, y en el artículo 35 de la Ley 11/2019, de 20 de diciembre, de Cooperativas de Euskadi, el Consejo Rector procede a convocar ASAMBLEA GENERAL ORDINARIA, que se celebrará el día **27 de febrero de 2025**, a las 18:30 horas en primera convocatoria, a las 19:00 horas en segunda convocatoria y a las 19:30 en tercera convocatoria, en los locales de la Sociedad sita en Goitiko-Antsobiaga Bidea nº 2 del municipio de Loiu con el siguiente:

ORDEN DEL DÍA

1. Designación de dos personas socias para la aprobación del acta de la reunión.
2. Lectura del informe de la aprobación del acta de la sesión anterior.
3. Examen de la Gestión Social y aprobación, si procede, de las Cuentas Anuales de la Cooperativa, así como del destino de los resultados.
4. Aprobación de la aportación obligatoria inicial y cuota de ingreso de las nuevas personas socias que escolarizarán a sus hijos e hijas en Lauro en el curso 2026-2027.
5. Informaciones del Consejo Rector.
6. Facultar al Presidente y Secretaria vigentes en el momento de la certificación para elevar a públicos los acuerdos de la Asamblea General inscribibles en el Registro de Cooperativas, que así lo requieran, así como para subsanar los defectos no sustanciales.
7. Ruegos y preguntas.

Lauro, 12 de febrero de 2025



Presidente/a

Xabier Manterloa Lejarza

NOTAS:

- El Informe Anual está a disposición de los socios/as en la dirección de web www.lauroikastola.eus.
- Se ruega a quienes deseen solicitar información concreta y/o formular preguntas en la Asamblea, las dirijan previamente, por escrito y con una antelación de al menos siete días, al Consejo Rector; con el fin de recabar adecuadamente la información solicitada. Estos escritos deben llegar por e-mail (ek@lauro.eus) o bien, entregándolos en la Secretaría de Dirección (Edif. Bachilleres).

LAURO IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEAREN OHIKO BATZAR NAGUSIRAKO DEIA

LAURO IKASTOLA, KOOPERATIBA ELKARTEAREN Estatutu Sozialen 30. artikulua eta Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 legearen 35. artikulua ezartzen dutenez, Kontseilu Errektoreak OHIKO BATZAR NAGUSIRako deia egitea erabaki du. Batzar Nagusia **2025eko otsailaren 27an** izango da, 18:30ean lehen deialdian, 19:00an bigarrenetan eta 19:30etan hirugarrenetan, Elkartearen lokaletan, Loiu Udaleko Goitiko-Antsobiaga Bidea, 2 kalean. Gai-zerrenda ondokoa izango da:

GAI-ZERREDA

1. Bi bazkide izendatu batzarreko akta onets dezaten.
2. Aurreko batzarreko aktaren onespeneko txostena irakurri.
3. Kudeaketa soziala aztertu eta, bidezko bada, Kooperatibaren Urteko Kontuak onetsi, bai eta emaitzen destinoa ere.
4. Lauron, 2026-2027 ikasturtean, euren seme-alabak eskolatuko dituzten bazkide berrien derrigorrezko hasierako ekarpena eta sarrera kuota onetsi.
5. Kontseilu Errektorearen informazioak.
6. Zertifikazioaren unean dirauten Kontseilu Errektoreko Presidente eta Idazkaria ahaldundu Kooperatiben Erregistroan inskribatu daitezkeen Batzar Nagusiaren erabakiak publiko bihurtzeko, beharrezkoa bada, bai eta funtsezko ez diren akatsak ongitzeko ere.
7. Galde-erantzunak.

Lauron, 2025eko otsailaren 12an

OHARRAK:

- Bazkideek eskuragarri duzue Urteko Txostena ikastolako www.lauroikastola.eus web orrialdean.
- Batzar Nagusiaren galderak egin edo informazioa eskatu nahi duenak Kontseilu Errektoreari bideratutako idatziaren bidez egin dezala eskatzen da, eta Batzarra izan baino zazpi egun arinago, informazioa era egokiz prestatu ahal izateko. Idatziok e-mailez bidali (ek@lauro.eus) edo Zuzendaritza Idazkaritzan bertan aurkeztu daitezke (Batxilergoko eraikina).

El Presidente, D. Xabier Manterola, y en virtud del artículo 26. cinco de los Estatutos Sociales inicia la sesión en tercera convocatoria con 82 votos presentes o representados y, previo saludo y agradecimiento a los asistentes por su presencia. Igualmente cita la ausencia de la Secretaria del Consejo Rector, y se nombra por unanimidad a la vocal Olatz Ibarretxe Larisgoitia para actuar como tal en la Asamblea General.

Lee el Orden del Día y hace dos aclaraciones: explica el procedimiento de votaciones, y el turno de ruegos y preguntas que se abrirá en cada punto del Orden del Día, y la necesidad de identificarse y coger el micrófono a la hora de intervenir.

A continuación introduce el primer punto del Orden del Día:

1.- DESIGNACIÓN DE DOS SOCIOS PARA LA APROBACIÓN DEL ACTA DE LA REUNIÓN.

Se solicita la colaboración de dos socios para la firma del acta y voluntariamente se presentan MIKEL ENSUNZA LANDETA socio nº 3.599, y AINARA EGIA BIZKARRALEGORRA socia nº 3.658. Consultada la Asamblea, se adopta por aclamación y unanimidad el siguiente:

ACUERDO: Designar a los socios D. MIKEL ENSUNZA LANDETA, socio nº 3.599 y Dña. AINARA EGIA BIZKARRALEGORRA, socio nº 3.658 para la aprobación y firma del acta de la presente sesión junto con el Presidente y la Secretaria, dentro del término legal previsto al efecto.

Concluido este punto, el Presidente pasa al punto nº 2 del Orden del Día.

2.- LECTURA DEL INFORME DE LA APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR.

El Presidente comenta que el acta de la Asamblea anterior ha estado a disposición de los socios en la web.

Sin comentario alguno el Presidente pasa al punto nº 3 del Orden del Día:

3.- EXAMEN DE LA GESTIÓN SOCIAL Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LAS CUENTAS ANUALES DE LA COOPERATIVA, ASÍ COMO DEL DESTINO DE LOS RESULTADOS.

D. Mikel Agirre Aizpuru, Secretario de la Comisión de Vigilancia, da lectura al informe de la Comisión de Vigilancia.

Presidenteak, Xabier Manterola jn., Elkarte Estatuén 26. Bost artikuluan dakarrenaren arabera, batzaraldia hasten du hirugarren deialdian 82 bertaratu edo ordezkaturako boturekin, batzartutakoak agurtu eta etorri izanagatik eskerrak eman ondoren. Era berean, Kontseilu Errektoreko idazkaria ez dagoela aipatu, eta aho batez Olatz Ibarretxe Larisgoitia bokala izendatzen da Batzar Nagusian idazkari giza jarduteko.

Gai-Zerrenda irakurri eta bi argibide ematen ditu: bozketarako prozesuaren azalpena egiten du eta Gai-Zerrendako puntu bakoitzean zabalduko den galde-erantzun tartea, eta hitz egin nahi duenak mikrofonoa hartu eta bere izena eman behar duela.

Ondoren, Gai-zerrendaren lehen puntuari sarrera ematen dio:

1.- BI BAZKIDE IZENDATU BATZARREKO AKTA ONETS DEZATEN.

Bi bazkideen kolaborazioa eskatzen da akta onets dezaten eta borondatez aurkezten dira MIKEL ENSUNZA LANDETA 3.599 zenbakidun bazkidea, eta AINARA EGIA BIZKARRALEGORRA 3.658 zenbakidun bazkidea. Batzarrari galdetuta, aldarriz eta aho batez ondokoa erabakitzen da:

AKORDIOA: MIKEL ENSUNZA LANDETA jn., 3.599 zenbakidun bazkidea, eta AINARA EGIA BIZKARRALEGORRA and. 3.658 zenbakidun bazkideak izendatzea batzarreko akta onetsi eta sinatzeko, Presidente eta Idazkariarekin batera, ondoreetarako aurreikusten den legearen arabera.

Puntu hau amaitutakoan, Presidenteak Gai-Zerrendako 2. puntura jotzen du.

2.- AURREKO BATZARREKO AKTAREN ONESPENEO TXOSTENA IRAKURRI.

Presidenteak aurreko Batzarreko akta webean eskuragarri egon dela bazkideentzat aipatzen du.

Parte hartzerik gabe Presidenteak Gai-Zerrendako 3. puntura jotzen du:

3.- KUDEAKETA SOZIALA AZTERTU ETA, BIDEZKO BADA, KOOPERATIBAREN URTEKO KONTUAK ONETSI, BAI ETA EMAITZEN DESTINOA ERE.

Jagolaritza Batzordeko idazkaria den Mikel Agirre Aizpuru jaunak Jagolaritza Batzordearen txostena irakurtzen du.

A continuación, el Presidente cede la palabra a la Directora-Gerente Idoia Iruretagoiena y a la Directora Pedagógica Zalaoa Gómez que explican el contexto actual y los diferentes apartados del Informe Anual en este ejercicio.

La Directora-Gerente cita la nueva Ley de Educación, la evolución de la natalidad y sus efectos en el sector de Educación con el cierre de aulas. Que en Lauro Ikastola las solicitudes para el 23/24 superaron las plazas, y que ante esta situación la Ikastola ha solicitado autorización para tener un aula más, y ha recibido resolución favorable, consolidando el futuro de la Ikastola. Explica también los apartados de financiación, subvenciones e inversiones realizadas.

La Directora Pedagógica desarrolla los siguientes apartados: Formación, Euskara Plana, Proyecto Plurilingüe, Materiales y proyectos propios, Plan de Educación digital, Actividades y proyectos de promoción de la lectura, Convivencia, Orientación, Proyectos significativos e innovadores, Sostenibilidad y Compromiso Social, actividades Deportivas, Culturales y lingüísticas, y resultados y contrastes académicos.

A continuación el Tesorero Aitzol Llona resume las cuentas anuales y la parte económica del Informe de Gestión del ejercicio finalizado el 31 de agosto de 2024. Agradece la aportación de los socios al "Fondo Gure Jakintza" para la realización de nuevos proyectos pedagógicos de carácter innovador que completen el desarrollo integral del alumnado.

Tras la preceptiva votación:

Se aprueba por mayoría de 81 votos a favor, 1 votos en contra, 0 votos en blanco, el siguiente:

ACUERDO: Aprobar la Gestión correspondiente al ejercicio 1 de septiembre de 2023 - 31 de agosto de 2024.

Se aprueba por mayoría de 82 votos a favor, y 0 voto en contra, 0 votos en blanco.

ACUERDO: Aprobar las Cuentas Anuales correspondientes al ejercicio 1 de septiembre de 2023 - 31 de agosto de 2024.

Ondoren, Presidenteak Zuzendari-Gerentea den Idoia Iruretagoiena eta Zuzendari Pedagogikoa den Zalaoa Gomez-i ematen die hitza, eta hauek egungo testuingurua eta Urteko Txostenaren atal ezberdinak azaltzen dituzte.

Zuzendari Gerenteak Hezkuntza Lege berria, jaiotza tasaren eboluzioa eta bere ondorioak Hezkuntza sektorean gela itxiarekin aipatzen ditu. Lauro Ikastolan 23/24rako eskariak plazak gainditu zituztela, eta egoera honen aurrean Ikastolak gela bat gehiago izateko baimena eskatu eta aldeko ebazpena izan duela, Ikastolaren etorkizuna sendotuz. Finantzaketa eta diru laguntzak, eta egindako inbertsoak aipatzen dira ere.

Zuzendari Pedagogikoak hurren atalak garatzen ditu: Formakuntza, Euskara Plana, Proiektu Eleanitza, Material eta proiektu propioak, Hezkuntza Plan digitala, Irakurketa sustatzeko jarduera eta proiektuak, Bizikidetzatza, Orientazioa, Proiektu esanguratsu eta berrikuntzak, Jasangarritasuna eta Giza Konpromezua, Kirola, Kultura eta hizkuntza ekintzak eta emailta akademikoak eta alderaketak aipatzen ditu.

Ondoren Aitzol Llona Diruzainak 2024ko abuztuaren 31an bukatutako ekitaldiaren Urteko Kontuak eta Kudeaketa Txostenaren atal ekonomikoa laburtzen du. Ikasleen garapen integrala osatzeko izaera berriztatzaileko proiektu pedagogiko berriak egiteko "Gure jakintza funtsa"n jasotako bazkideen aportazioa eskertzen du.

Legezko bozketa egin eta:

Aldeko 81 botoko gehiengoarekin, kontrako boto 1 eta 0 boto zurirekin, onesten da:

AKORDIOA: 2023ko irailak 1 eta 2024ko abuztuaren 31 arteko kudeaketa onartzen da.

Aldeko 82 botoko gehiengoarekin, 0 kontrako boto eta 0 boto zurirekin, onesten da.

AKORDIOA: 2023ko irailak 1 eta 2024ko abuztuaren 31a arteko kontuak onartzen dira.

Se aprueba por mayoría de 80 votos a favor, y 0 voto en contra, 2 votos en blanco.

ACUERDO: Destinar los 15.955€ de beneficios generados a Fondo Reservas Obligatorias en 3.545€ y a Fondo Reservas voluntarias irrepartibles en 12.410€.

Deposítense las Cuentas Anuales, el Informe de Gestión y de Auditoria de Cuentas externa en el Registro de Cooperativas, con los requisitos y en el término previsto al efecto por la legislación vigente.

Concluido este punto, el Presidente pasa al punto nº 4 del Orden del Día:

4.- APROBACIÓN DE LA APORTACIÓN OBLIGATORIA INICIAL Y LA CUOTA DE INGRESO DE LOS NUEVOS SOCIOS QUE ESCOLARIZARÁN A SUS HIJOS EN LAURO EN EL CURSO 2026/2027.

El Presidente explica la propuesta del Consejo Rector manteniendo el importe total en 1.300€:

Cuota de ingreso: 260€

Aportación obligatoria al capital: 1.040€

Cuota periódica de patrimonio neto: 10% del capital durante los primeros 5 años siguientes a la incorporación.

Tras la preceptiva votación, se aprueba por mayoría de 82 votos a favor, y 0 votos en contra, 0 votos en blanco, el siguiente:

ACUERDO: Establecer como aportación obligatoria inicial para los nuevos socios que van a escolarizar a sus hijos en Lauro el curso 2026/2027 el importe de 1.040 € y la cuota de ingreso en 260 €, total 1.300 €, con una cuota periódica de patrimonio del 10% del capital durante los primeros 5 años siguientes a la incorporación.

Concluido este punto, el Presidente pasa al punto nº 5 del Orden del Día:

Aldeko 80 botoko gehiengoarekin, 0 kontrako boto eta 2 boto zurirekin, onesten da:

AKORDIOA: Jardueran sortutako 15.955€-tako irabazien 3.545€ Derrigorrezko Erreserba Funtsera, eta 12.410€ Borondatezko Erreserba banaezin Funtsera eramatea.

Urteko Kontuak, Kudeaketa Txostena eta Kontuen kanpoko auditoretza Kooperatiben Erroldan erregistratuko dira, indarrean dagoen legeak ezartzen dituen eskakizunekin eta ondoreetarako aurreikusten den legearen arabera.

Puntu hau amaitutakoan, Presidenteak Gai-Zerrendako 4. puntura jotzen du:

4.- LAURON, 2026/2027 IKASTURTEAN, EUREN SEME-ALABAK ESKOLATUKO DITUZTEN BAZKIDE BERRIEN DERRIGORREZKO HASIERAKO EKARPENA ETA SARRERA KUOTA ONETSI.

Presidenteak Kontseilu Errektorearen proposamena azaltzen du, hau da, guztirako dirua 1.300 €tan mantenduz:

Sarrera kuota: 260€

Kapitalari derrigorrezko ekarpena: 1.040€

Ondare garbiaren aldizkako kuota: kapitalaren %10a bazkide sartu eta hurrengo lehen 5 urteetan.

Legezko bozketa egin eta aldeko 82 botoko gehiengoarekin, 0 kontrako boto eta 0 boto zurirekin, onesten da:

AKORDIOA: 2026/2027 ikasturtean Lauron euren seme-alabak eskolatuko dituzten bazkide berrien derrigorrezko hasierako ekarpena 1.040 €tan ezarri, eta sarrera kuota 260 €tan, guztira 1.300 €, bazkide sartu eta hurrengo lehen 5 urteetan kapitalaren %10eko ondare garbiaren aldizkako kuotarekin.

Puntu hau amaitutakoan, Presidenteak Gai-zerrendako 5. puntura jotzen du:

5.- INFORMACIONES DEL CONSEJO RECTOR

El Presidente comenta en primer lugar que la Ikastola va bien, siendo indicador de ello el número de solicitudes de matrícula con la evolución de la tasa de nacimiento actual y la autorización de la 6º aula en el nivel de 3 años, y el nivel académico del alumnado y logro del título de Bachiller del alumnado con dificultades.

El Presidente explica los siguientes temas:

- La Ley Vasca de Educación
- Plan de Infraestructuras de la Ikastola
- Lauro Fundazioa
- Plan estratégico 2025/2029

En relación a la nueva **Ley Vasca de Educación**, se señalan las líneas principales:

- Los centros concertados como parte del sistema educativo.
- Impulso al euskera.
- Marco sólido para la gestión de los centros.
- Medidas para evitar la segregación existente en la sociedad y reserva de plazas para vulnerables.

En cuanto al **Plan de Infraestructuras** de la Ikastola, el Presidente expone los avances realizados en el desarrollo del Plan de Campus de Lauro. Se dispone del permiso de obra de la carretera de circunvalación para convertir la carretera central en área para el alumnado. Para su desarrollo, hay que unir en tiempo el proyecto constructivo y adjudicación con la subvención para su desarrollo.

En torno a **Lauro Fundazioa**, se menciona que Lauro Ikastola pondrá en marcha la Fundación Lauro siendo sus ejes principales la difusión del euskera y la cultura vasca. La Fundación solicitará y posibilitará la participación de los padres. En el primer paso de la Fundación se ha organizado la obra "*Amama: Irrifarrearen Ondarea*" para recordar a las mujeres pioneras que tuvieron especial protagonismo en los primeros inicios de la Ikastola.

Por último, se informa que la Ikastola está trabajando en la definición del **Plan Estratégico 2025/2029**, realizando un cuestionario sobre expectativas y retos para aunar la visión directa de los padres y madres, con 700 respuestas. Además de la encuesta, se puede participar en grupos de trabajo.

5.- KONTSEILU ERREKTOREAREN INFORMAZIOAK

Presidenteak lehenik Ikastola ondo doala aipatzen du, horren adierazle izanik matrikula eskaera kopurua egungo jaiotza tasaren bilakaerarekin 6 gela onarpen ebazpenarekin, eta ikasleen maila akademikoa eta zailtasundun ikasleen Batxilergoko titulazio lorpena.

Presidenteak hurrengo gaiak jorratzen ditu:

- Euskal Hezkuntza Lege berria
- Ikastolako azpiegitura plana
- Lauro Fundazioa
- 2025/2029 Plan Estrategikoa

Euskal Hezkuntza Lege berriari dagokionez, lerro nagusiak aipatzen dira:

- Itunpeko ikastetxeak Hezkuntzako sistema parte dira
- Euskarari bultzada.
- Ikastetxeen kudeaketarako marko sendoa.
- Gizartean dagoen segregazioa ekiditeko neurriak eta zaurgarrientzat plaza erreserba.

Ikastolako **Azpiegitura Planari** dagokionez, Presidenteak Lauroko Kanpus Planaren garapenaren egoera azaltzen du. Saihesbiderako obra-baimena badago egungo errepide nagusia ikaslegoaren erabilpenerako bihurtzeko. Proiektua garatzeko, eraikuntza-proiektua, esleipena eta obra egiteko dirulaguntzarekin batu behar da denboran.

Lauro Fundazioari dagokionez, Lauro Ikastolak Lauro Fundazioa martxan jarriko duela aipatzen da euskara eta euskal kultura zabaltzea izanik fundazioaren ardatz nagusiak. Fundazioak gurasoen partaidetza eskatu eta ahalbidetuko du. Fundazioaren lehen urratsean, Ikastolako lehen hasieretan protagonismo berezia izan zuten emakume aitzindariak gogoan izateko "*Amama: Irrifarrearen Ondarea*" antzezlan antolatuko da.

Azkenik Ikastola **2025/2029 Plan Estrategikoa** definitzeko lanean ari dela azaltzen da, espektatiba eta erronkei buruz gurasoen ikuspuntu zuzena batzeko galdetegia egin delarik, 700 erantzunekin. Inkestaz gain, lan taldeetan ere parte har daiteke.

Concluido este punto El Presidente pasa al punto nº 6 del Orden del Día.

6.- FACULTAR AL PRESIDENTE Y AL SECRETARIO VIGENTES EN EL MOMENTO DE LA CERTIFICACIÓN PARA ELEVAR A PÚBLICOS LOS ACUERDOS DE LA ASAMBLEA GENERAL INSCRIBIBLES EN EL REGISTRO DE COOPERATIVAS QUE ASÍ LO REQUIERAN, ASÍ COMO PARA SUBSANAR LOS DEFECTOS NO SUSTANCIALES.

ACUERDO: La Asamblea acuerda por unanimidad facultar al Presidente y a la Secretaría vigentes en el momento de la certificación para elevar a públicos los acuerdos de la Asamblea General inscribibles en el Registro de Cooperativas que así lo requieran, así como para subsanar los defectos no sustanciales.

Concluido este punto el Presidente pasa al punto nº 7 del Orden del Día.

7.- RUEGOS Y PREGUNTAS

El Presidente abre un turno general de ruegos y preguntas, con la siguiente participación:

Socio 3443, quien comparte su pena ante la baja participación, y preocupación por el uso del euskera. Texto completo en anexo 1.

Socio 3658, quien pregunta por el objetivo de la 6ª línea, así como por la trayectoria de los alumnos tras la Ikastola, además de los que van a la Universidad. La Directora-Gerente y la Directora Pedagógica responden.

Socio 3974, quien pregunta sobre la fecha prevista para la circunvalación y sobre el número de alumnado que finaliza 2º de Bachiller sobre los matriculados en 3 años. El Presidente y la Directora Pedagógica responden.

La Vicepresidenta lee el escrito remitido por la socia 3917, dos días antes, en nombre de *Altxa Burua (AB)*, recogido en el Anexo 2. En el escrito enviado se solicita recoger en acta las peticiones, respuestas y comentarios al respecto.

El presidente comparte con la Asamblea General una reflexión sobre el movimiento AB de Lauro, recogido en el anexo 3.

Puntu hau amaitutakoan, Presidenteak Gai-zerrendako 6. puntura jotzen du:

6- ZERTIFIKAZIOAREN UNEAN DIRAUTEN KONTSEILU ERREKTOREKO PRESIDENTEA ETA IDAZKARIA AHALDUNDU KOOPERATIBEN ERREGISTROAN INSKRIBATU DAITEZEN BATZAR NAGUSIAREN ERABAKIAK PUBLIKO BIHURTZEKO, BEHARREZKOA BADA, BAI ETA FUNTSEZKO EZ DIREN AKATSAK ONGITZEKO ERE.

AKORDIOA: Batzar Nagusiak aho batez onartzen du zertifikazioaren unean dirauten Kontseilu Errektoreko Presidente eta Idazkaria ahalduntzea Kooperatiben Erregistroan inskribatu daitezken Batzar Nagusiko erabakiak publiko bihurtzeko, beharrezkoa bada, bai eta funtsezko ez diren akatsak ongitzeko ere.

Puntu hau bukatzerakoan, Presidenteak Gai-zerrendaren 7. puntura jotzen du.

7.- GALDE-ERANTZUNAK

Presidenteak galde-erantzunen txanda zabaltzen du, hurrengo parte hartzearekin:

3443 bazkidea, zeinek asistentzia eskasarekiko tristura eta euskeraren erabilerarekiko kezka partekatzen duen. Testu osoa 1 eranskinean.

3658 bazkideak aipatutako 6. Lerroaren helburuaz galdetzen du, bai eta Ikastola osteko ikasleen ibilbideaz, Unibertsitatara doazenez gain. Zuzendari-Gerenteak eta Zuzendari Pedagogikoak erantzuten dute.

3974 bazkideak saihebidetaren obrarako dataz galdetzen du, eta 3 urterekin hasten diren zenbat ikaslek bukatzen duten 2. Batxiler. Presidenteak eta Zuzendari Pedagogikoak erantzuten dute.

Lehendakariordeak *Altxa Burua*-ren (AB) izenean 3917 bazkideak bi egun lehenago bidalitako idatzia irakurtzen du, 2. eranskinean jasoa. Horri buruzko proposamenak, erantzunak eta iruzkinak aktan jasotzeko eskatzen da bidalitako idatzian.

Presidenteak Lauroko AB mugimenduari buruzko erreflexio bat partekatzen du Batzar Nagusiarekin, 3. eranskinean jasoa.

La socia que remitió el escrito en nombre de Altxa Burua realiza dos apuntes al respecto: aclara que Altxa Burua no ha propuesto crear un AMPA, y pregunta por qué se comenta que no se van a permitir comportamientos desapropiados. El Presidente responde que ha visto una encuesta de AB donde se menciona que se quiere crear un AMPA. La socia 3917 y 4088 responden que han realizado un formulario solicitando la opinión de las familias sobre diversos temas, preguntando en el mismo si ven adecuado la creación de un AMPA, pero que no han propuesto nada.

La socia 4088, reitera su sorpresa por el comentario realizado sobre los comportamientos, y da las gracias a la Dirección y Consejo Rector por el trabajo realizado en el desarrollo del proyecto educativo. Aclara que en el grupo de trabajo AB-Lauro trabaja un equipo formado por varias disciplinas (psicóloga, docentes, psiquiatra, médico), basándose sus propuestas en la evidencia científica actual. Comenta las actividades realizadas desde el nacimiento del movimiento en noviembre de 2023: varias reuniones con la Ikastola en las que se han presentado sus propuestas, se ha lanzado una encuesta a las familias para retrasar el uso del primer smartphone, se han presentado dos miembros al Consejo Escolar, han pedido su posicionamiento a los colegios de médicos y psicólogos de Bizkaia, han empezado a colaborar con el ayuntamiento de Loiu en la concienciación de la población, están en contacto con la familias de otras Ikastolas en situación similar, y nos mantenemos al día de la evidencia científica y recomendaciones de salud pública al respecto.

Las acciones solicitadas anteriormente han sido que no haya pantallas en HH y que se retrase el uso del Chromebook y que se sustituya el Ipad de Secundaria por el Chromebook. Y agradecen los cambios realizados en el curso pasado y los previstos para el que viene. Pero los cambios estructurales son urgentes, y es el motivo de la propuesta presentada. Agradece a las familias que dan su apoyo y confianza al grupo y van a seguir trabajando por los que más quieren.

La Directora-Gerente responde a las peticiones realizadas en el escrito de *Altxa Burua*, recogido en el Anexo 4.


Altxa Buruaren izenean idatzia bidali zuen bazkideak bi ohar egiten ditu horri buruz: Altxa Buruak ez duela IGEa sortzea proposatu argitzen du, eta zergatik esaten den ez dela onartuko portaera desagokirik. Lehendakariak ABren inkesta bat ikusi duela non IGE bat sortu nahi dela aipatzen den dio. 3917 eta 4088 bazkideak familien iritzia gai desberdinei buruz galdetuz inkesta bat egin dutela diote, bertan IGE bat sortzea egoki ikusten zen edo ez galdetzen zuten, baina ez dutela ezer proposatu.

4088 bazkideak berriz ere harridura adierazten du portaerei buruz egindako iruzkinagatik, eta eskerrak emanten dizkie Zuzendaritzari eta Kontseilu Errektoreari hezkuntza-proiektuaren garapenean egindako lanagatik. AB-Lauro lantaldean hainbat diziplinaz (psikologoa, irakasleak, psikiatra, medikua) osatutako talde batek lan egiten duela argitzen du, bere proposamenak egungo ebidentzia zientifikoan oinarrituta. 2023ko azaroan mugimendua sortu zenetik egindako jarduerak aipatzen ditu: hainbat bilera egin dira Ikastolarekin, proposamenak aurkeztu dira, familiei inkesta bat egin zaie familien lehen smartphonearen erabilera atzeratzeko, bi kide aurkeztu dira Eskola Kontseilura, Bizkaiko mediku eta psikologoek elkargoei jarrera eskatu diete, Loiu Udalarekin lankidetzan hasi dira herritarrak kontzientziatzeko, harremanetan daude antzeko egoeran dauden beste ikastola batzuetako familiekin eta ebidentzia zientifikoaren eta osasun publikoaren gomendioek egunean gaude.

Aurretik eskatu izan dira HHn pantailarik ez egotea eta Chromebookaren erabilera atzeratzea eta Bigarren Hezkuntzako Ipad-aren ordeza Chromebook erabiltzea. Eta aurreko ikasturtean egindako aldaketak eta datorren ikasturterako aurreikusitakoak eskertzen dituzte. Baina egiturazko aldaketak premiazkoak dira, eta hori da aurkeztutako proposamenaren arrazoia. Eskerrak ematen dizkie familiei taldeari babesa eta konfiantza emateagatik eta gehien maite dutenen alde lan egiten jarraituko dute.


Zuzendari-Gerenteak Altxa Buruaren idatzian egindako eskaerei erantzuten die, 4. eranskinean jasoa.

Sin más asuntos que tratar, el Presidente, D. Xabier Manterola, da por finalizada la misma a las 21:30 horas del referido día 27 de febrero de 2025.




Idazkaria
Olatz Ibarretxe Larisgoitia

Tratatzeko gai gehiago ez dagoelarik, Presidenteak, Xabier Manterola jaunak, amaitutzat ematen du Batzar Nagusia, 21:30ean, 2025eko otsailaren 27an.



Presidentea
Xabier Manterola Lejarza



Izendatutako bazkidea
Mikel Ensunza Landeta jn.




Izendatutako bazkidea
Ainara Egia Bizkarralegorra and.

Diligencia: la Letrada Asesora de Lauro Ikastola, S. Coop., Dña. Leire Arana Sánchez, colegiada del Ilustre Colegio de Abogados del Señorío de Bizkaia nº 7668, en su condición de tal, y a tenor de lo previsto en el artículo 77-2 de la ley 11/2019, de 20 de diciembre, de Cooperativas de Euskadi, dictamina que los acuerdos adoptados en la Asamblea General Ordinaria de la Cooperativa celebrada el día 27 de febrero de 2025 son ajustados a derecho, por así considerarlo y emite la presente diligencia para que quede constancia expresa de su dictamen y pueda hacerse referencia a la misma en el certificado que se expida para la inscripción en el Registro de Cooperativas de Euskadi.

Diligentzia: Lauro Ikastola, Koop. E.-ko Legelari-aholkulariak, Leire Arana Sánchez andereak, Bizkaiko Abokatuen Elkargoko 7668 zenbakidun elkargokideak, izate horrekin, eta Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legean agertzen den 77-2 artikulua arabera, ondoko irizpena ematen dut: 2025eko otsailaren 27ko Ohiko Batzar Nagusian onartutako erabakiak legezkoak direla, eta ontzat ematen dituela; eta bere irizpena espres jasota gera dadin eta Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatzeko egingo den zertifikatuan beronen ebazpenari erreferentzia egin ahal izateko diligentzia hau ematen du.

Lo que suscribo el día 14 de marzo de 2025.

2025eko martxoaren 14an sinatzen dut.



Leire Arana Sánchez
Lauro Ikastola Kooperatiba Elkartearen Legelari-aholkularia

1. eranskina – Anexo 1

Hasteko, eskerrak eman nahi dizkiot Kontseilu Errektoreari datozen urteetako gure ikastolaren ibilbidea definitzeko familion hitza kontutan hartzearen. Nik, zuen baimenarekin, eman diguzuen aukera hau baliatu nahiko nuke aspaldian kezkatzen nauen gai bati heltzeko: gure hizkuntzaren gaiari, euskarari, alegia.

Lauro ikastolak bere sorreratik izan ditu oinarri-oinarrian euskararen zaintza eta sustapena; hainbat gurasok, tartean neureek, amets honen aldeko apustua egin zuten 60. hamarkadan, frankismo betean. Eta amets hori bete egin zen, askoren lanari eta konpromisoari esker. Proiektu sendo bat da orain, gure eskuetaraino iritsi dena: Lauro ikastola, Bilbo inguruko ume eta gazteak euskaraz hezten eta hazten dituen hezkuntza-komunitate anitza.

Hala ere, azken aldian euskararen balioa zalantzan jartzen duten zenbait joera suma daitezke. Bizi dugun mundu globalizatuan teknologia berriak eta ingelesa bultzatu behar dira, hor ez dago zalantzarik, baina ez euskararen kaltetan. Geroz eta urrunago iritsi nahi dugu, etxekoa etengabe gutxiesten dugun bitartean. Ez dut uste estrategia ona denik. "Mundutarrak" garelakoan, baliteke azkenean inongoak ere ez izatea, eta nortasuna galtzea, munduari begiratzeko gure modu propioa, euskararen ardaztua. Hori galduz gero, zer daukagu eskaintzeko?

Orekan dago gakoa. Kontuan izan gure ikasle askorentzat ikastola bera dela euskararen arnasmunea, askotan bakarra. Aukera hori (eta batik bat, ardura hori) ezin dugu galtzen utzi. Ikastolak bikaintasuna izango badu, euskara behar du.

Euskarak badu bere tokia Lauron, baina lehengoa mantentzeaz gain, arnasmune horiek zabaltzeko ahalegina egin behar genukeela uste dut: euskara ez dadila ikasgela barruko hizkuntza izatera mugatu, bermatu dezagun euskarazko parte hartzea guraso-bileretan, gure eguneroko bizitzan, etxean, lagunartean... Gizarte eleanitz batean bizi gara, eta, zorionez, elkar ulertzeko modu asko daude gaur egun. Hor daukagu teknologia berriak, itzulpen zerbitzuak, elkarrizketa elebidunak posible direla erakutsi duten Euskaraldiaren moduko ariketak... Ikastola batean ez dago zertan betiko inertzietan erori, gaztekeraz denok ulertzen dugula esanda. Badakigu logika horiek nora garamatzaten. Euskarak ezin ditu espazio gehiago galdu.

Beste kezka batzuen aurrean gurasoak eta ikastetxeak modu miresgarrian antolatzen ari dira, mugikorren gehiegizko erabilerari dagokionean, esaterako. "Altxa buruak" diogun bezala, altxa ditzagun euskararen ahotsak ere.

Erronka asko daukagu aurretik, gure seme-alabek biziko duten geroa galdera ikur handi bat da. Baina gure hizkuntzak ezin du erronken zerrenda bateko azkeneko puntua izan, puntu guztiak zeharkatzen dituen ardatza baizik. Euskararen balioa ez dago soilik tituluetan edo akademia mailan. Laurotik herritar eta profesional euskaldunak aldatzea da helburua, bakoitzak bere eremuan euskaraz eragin dezan: irakaskuntzan, medikuntzan, ingeniartzan, kazetaritzan zein kulturgintzan. Laurok belaunaldi euskaldunak eskaini behar dizkio gizarteari. Hori balio gehigarri bat da zalantzarik barik, eta haien haurra gurean matrikulatzen duten gurasoek berme hori jaso behar dute.

Ez ahaztu gure ikastolaren aspaldiko leloa: Gure jakinduria, gure askatasuna. Esan genezakeen ingelesez ere. Denek ulertuko lukete, baina orduan ez ginateke Laurori buruz ariko.

Hortik gatoz. Baina norantz goaz? Hausnarketa zabalik uzten dut. Zein da Lauro osatzen dugunok euskarari eman nahi diogun balioa? Zertan izan nahi dugu erreferente? Bidegurutze estrategiko batean baldin bagaude, aukera dezagun zentzuz, eta berandu baino lehen. Eskerrik asko.

Las propuestas son las siguientes:

1) Con el objetivo de hacer más atractiva nuestra Ikastola respecto a otras opciones, ligado a la recomendación de las autoridades sanitarias del tiempo de uso de pantallas en educación, así como por ecología, planteamos:

- Para el curso 25/26, en LH3 y LH4: la creación de aulas de ordenadores o el uso de Chromebooks compartidos (que serían propiedad de la Ikastola) en vez de adquirir un Chromebook propio cada alumno.

- En paralelo, disponer de los cuadernos de apuntes y actividades de Lengua e Ingurune en papel ("txostenes"), tanto para trabajarlos en el aula como para estudiar en casa. Actualmente, las lecturas y la ortografía están en papel, pero siguen utilizando el ordenador para aprender gramática y vocabulario, así como todas las pruebas de comprensión oral.

- Para el curso 26/27: uso de las aulas de ordenadores o de los Chromebooks compartidos por todos los alumnos de LH3-LH6.

2) En caso de que la propuesta de las aulas de ordenadores/Chromebooks propios de la Ikastola no se ponga en marcha: que se implemente un plan alternativo para las familias que legítimamente no vayan a adquirir un Chromebook. La LOMLOE no exige que las familias deban adquirir una tablet ni un chromebook para que sus hijos/as desarrollen competencias digitales. Sólo algunos descriptores de esta competencia requieren el uso de un dispositivo, por eso, las administraciones son las encargadas de dotar a los centros educativos de los dispositivos necesarios. Artículo 88 de la LOMLOE <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2020-17264>

3) Que se continúe valorando por la Ikastola la opción de poder reutilizar el Chromebook en DBH, en vez de adquirir un iPad nuevo.

4) Seguir reflexionando sobre la necesidad y el valor añadido que aporta incorporar el uso del Chromebook en niños de ocho años que aún no tienen afianzada la lectoescritura. A esa edad, un ordenador no tiene que ser instrumento de ocio, pero tampoco de trabajo. La Ley marca la adquisición de la competencia digital en Educación Primaria, pero no especifica que tenga que existir un plan "un alumno-un chromebook" ni que ese plan tenga que empezar en LH3 (decreto 77/2023). Otro dato a considerar es que esta competencia se sigue trabajando hasta segundo de Bachillerato, teniendo un largo recorrido para ello.

Solicitamos que consten en acta tanto las peticiones como las respuestas a las mismas, al igual que cualquier comentario que se realice en torno a ellas o a las personas firmantes.

Eskerrik asko.

Altxa Burua Lauro

(num de cooperativista: 03917)  (Ctrl) ▾

Badakizuenez Batzar Nagusira (BN) galdera erreguak bidali ahal direla idatziz 7 eguneko aurrerapenarekin. Altxa Burua (AB) izenean idatzi bat heldu da Otsailak 25, orain dala egun bi.

Lauroko AB ri mugimenduari buruzko erreflexio bat nahi dizuegu heldu arazi BNri galdera eta proposamen hauek erantzun baino lehen.

1. Kontseilu Erretore (KE) osoak ondo ikusten du edozein guraso talde bat gure seme alaben edo ikastolaren alde egindako lana eta egiten diren ekarpen guztiak. Ta zorionez talde desberdin daude ikastolako umeein ta ikastolarentzat lan egiten.
2. Lauroko AB taldea sortu zenetik ikastolako Zuzendaritza Taldeak (ZT) ta Kontseilu Erretoreak bilera desberdin izan ditu bere proposamenak ta ideak ezagutzeko ta aztertzeke. Bilerara etorri ziran ABkoek esanda, Lauro Ikastola izan zan Euskadin AB talde batekin batzarra izaten lehena.
3. KEk ZT taldeak hartutako proposatutako bidea babesten du, ta bere lanean konfiantza mantentzen dugu. Gure seme alaben heziketa maila eta Laurok duen arrakastan ikusten ditugu emaitzak .
4. Argi utzi behar dugu gai hau ZT eta iraskasleei errespetua mantenduz eta begirunearekin proposatu ta landu behar dela eta KE tik ez ditugu onartuko aproposak ez diren jarrerak.
5. Ikastola bakarra da eta ikasketa plana ikasle guztientzat berdina da, ezin dezakegu plan pertsonalizatuak egin gurasoen nahien arabera. Hobekuntzak entzun, aztertu eta ikasle komunitate guztiarentzan aplikatzen dira
6. 23/24 kurtsoaren zehar ZT erreflexio bat egin zuen AB k egindako proposamenak entzun eta gero. Erreflexio horrerri jarraituz, digitalizazio planaren egokitzapen bat egin zan, ta hor AB taldeak egindako proposamen batzuk zuzenean hartuz ta beste batzuk ez ziran ikusten beharrezkoak, ta beste batzuk azterketa gehiago behar zuten. Egokitutako plan digital barria gurasoei helarazi zitzaigun ta web orrialdean dago eskuragarri
7. KE k plan estrategikoaren eguneratze barnean inkesta ta parte hartze prozesu bat ireki du digitalizazioa ta beste gai batzuei buruz

gurasoen iritzia jasotzeko. Ikastolak aurretik dituen erronkak asko dira eta digitalizazio horietako bat da inkestan azaldu zen bezela.

8. Beste alde batetik penaz ere ikusten ditugu ABk azkeneko egunetan, bere inkesta batean, nola proposatu duen IGE (AMPA) bat sortzea. Gurasoen kooperatiba bat izanda, IGE bat ofizialki eratzea ez diogu ikusten zentzunik, kooperatibaren gobernantza egituraren sistema paralelo bat sortzea litzateke. Horrezaz gain, AB ren proposamenean aipatzen da kuotak ta subentzioekin finantziatuko dala. Gaur egun Lauro Ikastolak, kooperatiba bat danez, IGE subentzioak hartzen ditu jada.
9. KE k ta ZT AB taldearekin izan duen azkeneko batzarra Otsailak 15 ean izan da. Bertan digitalizazio planaren ikuspegia ta egokitzapenaren azalpenak eman ziran. Bilera giro onean joan zan ta AB k aipatutako gai guztiei erantzuna eman zitzairen. eta horrela jarraituko dugu gurasoek ekartzen dituzten ideia eta hobekuntza guztiak aztertzen.

10. Laburbilduz

- a. Errespetu baten barne, ekarpenak beti izango dira ongietorriak
- b. Digitalizazio beharrezkoa ikusten dugu eta onartzen ditugun hobekuntzak ikasle komunitate guztian martxan jarriko ditugu
- c. Legeak ez du behartzen gauza askotara eta Laurok gauza asko ezartzen ditu. Adibidez Lauron 15 bat irakasle gehiago ditugu, klaseak desdoblatzeko eta gure ikasleen esperientzia hobetzeko. Ta hori da Lauoren eskaintzaren aberastasuna.
- d. KEak Zuzendaritza taldean eta irakasleetan konfidantza guztia dauka eta lanean orain arte egin duten moduan jarraitzea eskatzen diegu.

4. eranskina – Anexo 4

1. Ikastolako Hezkuntza proiektua ZT eta talde dozentek ibilbidean zehar sortutakoa da eta bere berezgarria irakasleek euren inplikazioarekin sortutako materialekin lan egiten dugula da helburu eta diseinu pedagogikoarekin, editorialek eta beste liburuek ez digutena eskaintzen eta hobetzen eta berritzen goazena, ikasleak ikaskuntza prozesuaren protagonista aktiboak izateko.
2. Eusko Jaurlaritzak, legeak eta urteetako ibilbidean ikastolako profesionalek (ZT, irakasleak) osotutako esperientzia eta ebidentziekin berrikusten ditugu gure planak, eta ikasleak eta familiak entzuten ere.
3. Konpetentzia digitala legez landu behar dugu. Europar Batasunak LOMLOE, Euskadiko hezkuntza legeak aipatzen dute, ikaskuntza iraunkorrerako konpetentzia klabeak buruz, K. digitala beste 7 konpetentzien garrantzia duela. Hezkuntza-etapa guztietan modu transbertsalean landu eta garatu behar da. Bak daude maila berean, jada ez baitira zeharkako konpetentziak aurreko legeak markatzen zituen bezala. Oinarritzko konpetentziak hezkuntza-sisteman funtsezko trebetasun eta ezagutzak dira, ikasleek bizi-proiektu autonomia gara dezaten eta gizartean parte har dezaten. Konpetentzia hauek ez dira ikasgai bakar batean lantzen, arlo guztietan integratu behar dira, modu transbertsalean, ikasleek benetako prestakuntza integrala ziurtatuz.
8 konpetentziak, digitala barne, arlo guztietan lantzen ditugu.
Horregatik ez dugu apropos ikusten "ordenagailu gela" sortzea, gailu digitalak arlo desberdinetan eta arrazoi pedagogikoekin txertatzen direlako ikasleek egunerokotasunean. Arrazoi pedagogikoen barruan topatzen ditugu ikasleek ikasketa prozesuari erantzen zaizkion balio erantsiak.
4. Ikastolan ikasle guztiak hezitu behar ditugu, profil desberdinetako ikasle eta familiak ditugu, ezagutza maila, heziketa estiloa, guztiena ez da berdina. Adin txikietatik egin behar dugu eta beharra ikusten dugu erabilera ez egokia adin hauetan egiten delako kasu askotan, ikastolakoak ez diren kontu eta gailuekin. Modu progresiboan, modu naturalean eta ikasleek autonomia bultzatuz egiten dugu. Erabilera ona, positiboa, segurua, aberasgarria egin dezatela irakatsiz, ikastolako profesionalen bidez.
Horregatik "Heziketa"rekin jarraitu behar dugu, gailu gabe, egiten dugula, eta gailuekin, modu orekatuan.
5. "Plan Digitala osasuntsu-erregulatua, etiko-arduratsua" berrikusi genuen informazio iturri desberdinekin, sortzen diren ikerketa, ebidentzia, adituak esparru desberdinetan, eta ABk egindako proposamenekin. ZTko jarrera beti izan da lankidetzak, entzute aktiboa eta konfidantzazko esparruak sortzea. Proposamen batzuk hobeleroetan barneratu ditugu, aurreko asteko bileran luzatu genizuen moduan (mugikorren protokoloan barneratuko ditugu eskatutako aldaketak, irakurketa saioak eta etxerako lanak paperean, youtube desgaitu, mekanografia landu, kontrolak zorrotz, formakuntzak gehitu ikasle eta familientzako, mezu batzuk indartu, argitu, adibidez).

Aipatutako txostenak, aurreko ikasturteko plan digitalaren errebisio eta hobelerroen ondorio dira, aurten ere ZTk eta irakasleak hobelerroekin jarraitzen dugu, konkretuki LHko irakasle talde osoa hausnarketa fase desberdinetan daude hobelerroak finkatu eta adosteko modu koordinatuan. 2025/26 ikasturteari begira hobelerroak ezarriko dira arlo guztietan eta zehaztazun handiagoak egingo dira balio erantsietan. Denbora asko ematen ari gara gai honetan, ardura, kontzientzia partekatzen dugu, gure ikasleen ongizatea eta ikasle/familiei tresnak eman nahi dizkiegulako.

6. Lehen Hezkuntzako 3. mailan irakurketa-idazketaren dekodifikazioa finkatuta dago, arlo hau etapa osoan zehar lantzen jarraitzen badugu ere. Horregatik, behin irakurketa-idazketa prozesua oinarrituta dagoela, tresna digitalen erabileran ikasleak trebatzen hasten gara. Konpetentzia digitala garatzean ez dugu soilik erabileraren inguruan hitz egiten, kontzientzia digitala sortu eta osasun digitalaz ere hitz egiten gaude.
7. AEP (Asociación Española de Pediatría)ren arabera, gailu teknologikoa erabiltzen hasten den adina ez da erabakiorragoa beste eragile batzuek duten indarrarekin alderatuta, adibidez, ikusten dituzten edukiak, nagusiek egiten duten gailu hauen erabilera eta noiz eta non erabiltzen diren. Horregatik Chromebook-en implementazioa ikasleen prozesuan pausuz-pausu egiten da LH3n hasita, nagusi batek gidatua eta jarduera bakoitzera egokituta.
8. Adi gaude, bigilantzia egiten dugu, ebidentziei, ikerketei, eta jardunaldi desberdinetan egon gara, dena hausnartzeko eta aztertzen jarraitzeko. 3.LHn gailu digitalekin lanean hasten bagara ere, baliabide analogikoen erabilera nagusia da ikasleen egunerokoan eta gomendatutako denboran gaude, LHn ordu bat baino gutxiago pantailekin lanean, eta mailaren arabera hori baino gutxiago da ere.
9. Gure tresnen erabilera kritikoa egiten ari gara, teknologien aukerak aprobetxatzeko eta gure prozesuak aberasteko, zeren denbora guztiak ez dira berdinak, ikasgai guztietan ez da berdina. Balio erantsia eman behar diogu eta honetan gaude, moldaketa batzuk egin ditugu eta jarraituko dugu horrela. Eta irakasleak berak badaki noiz den egokiago eta pertinenteago pedagogikoki erabilera. Erabilera aberasgarria izatea bilatzen dugu: ikaskuntza jarraia, ikasleen alfabetizazio digitala-ikusentzunezkoa, konputazionala lantzeko, motibazioa, komunikazioa irakasleekin errazteko, erritmo desberdinetara lan egiteko, informazio elkartrukea eta talde lana, sormena eta pentsamendu kritikoa, ikaslearen autonomia, ebaluatzeko modu berriak etab.
10. Urteetako esperientziatik gaur egungo planaren oinarria egoki ikusten dugu, bakoitzak bere ordenagailua, eta bi behar direnez ikastolako ibilbidean, hurrengo etapan ipada izatea. Etapako helburuak eta ikasleen adinagatik, klaseetan tresna osagarria izateko eta ez oztopoa. Duela urteak froga egin genuen ordenagailu batekin ikasleak DBHn geletan eta ez zen ondo irten.

11. Bere garaian ordenagailua sartzerakoan kosteen analisisia egin genuen eta liburuak kendu genituen material propioarekin ordezkatzuz eta horrela familientzako 250€ urtean inguru aurrezteak lortu genuen.

Gailu propioek EJKo beka izan dute duela gutxi arte, baldintza batzuk betetzen zituzten familientzako. Bestalde, EJK ez du informatika gelarik finantzatzen.

Gure aldetik hurrengo ikasturtetik aurrera chromebooka berrerabiltzea ahalbidetuko dugu. Arrazoiak, modelo berriek bizitza egokiagoarekin helduko direla aurreikusten dugu aurreko modelo zuten ordenagailuekin alderatuta, tresna hauek ezin direlako oztopo bat izan klaseetan funtzionatzen ez badute, bateriarekin etab. Froga egingo dugu nola doan berrerabilpenarekin.